Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
20. Herri Zorra **20.** ***Deuda Pública***	**20**. Herri Zorra **20**. *Deuda Pública*	**011.101** Herri Zorraren Kontrola **011.101** *Control de la Deuda Pública*

Zorpetzea eta bermeak ematea

5/2013 Foru Dekretu Arauemaileak 119. artikuluan ezartzen du urte bakoitzeko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak epe luzerako zorpetzearen gehieneko muga onetsiko duela, eta 128. artikuluan, berriz, Foru Aldundiak eman ditzakeen bermeen gehieneko zenbatekoa ezartzen du; muga hori ere Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan finkatuko da.

Zorpetze berria egiteko edo bermeak emateko baldintza zehatzak aurrekontu-ekitaldian zehar ezartzen dira, eragiketa motei, interes tasei, muga egunei eta abarrekoei dagokienez.

Azken batean, hauxe da egitarau honen helburua: alde batetik, zorpetze mota guztien kudeaketa eraginkorra egitea, eta bestetik, Foru Aldundiak jaulkitzen dituen bermeak kontrolatzea.

Helburu bikoitz hori honako puntuetan gauzatuko da:

- Aldundiaren zor-zorroa aztertzea, unean uneko egiturarik egokiena lortzeko.
- Zorpetze berrirako aukera guztiak aztertzea, modalitateei, epeei, amortizazio bideei eta abarri dagokienez, egokientzat jotzen dena hautatzeko, baldintza horiek eta lortu nahi den zorpetze-egitura kontuan izanik. Behin alternatiba hautaturik, finantza-erakundeekiko harremanen prozesuaren bidez gauzatuko da, behin betiko baldintzak negoziatzeko eta eragiketak formalizatu aurreko betekizunak betetzeko.

Endeudamiento y prestación de garantías

El Decreto Foral Normativo 5/2013, en su artículo 119, establece que la Norma Foral de Presupuestos Generales de cada año aprobará el límite maximo de endeudamiento a largo plazo, y en su artículo 128 establece el importe máximo de las garantías que puede conceder la Diputación Foral, límite que se fijará, así mismo, en la misma Norma Foral de Presupuestos Generales.

Las condiciones concretas en que se realiza el nuevo endeudamiento o la prestación de garantías se determinan durante el ejercicio presupuestario, en lo referente a los tipos de operación, interés, fechas de vencimiento, etc.

En definitiva, el objetivo de este programa es, por una parte, llevar a cabo una gestión eficiente del endeudamiento en sus diferentes modalidades y, por otra, controlar las garantías emitidas por esta Diputación .

Este doble objetivo se materializa en los siguientes puntos:

- Análisis de la Cartera de Deuda de la Diputación para llegar a la estructura más adecuada en cada momento.
- Estudio de todas las opciones posibles de nuevo endeudamiento tanto en cuanto a modalidades, plazos, formas de amortización, etc. para elegir la que se considere más idónea en base a dichas condiciones y a la estructura de endeudamiento que se pretende alcanzar. Una vez elegida la alternativa, se materializa a través de un proceso de relaciones con entidades financieras, con el fin de negociar las condiciones definitivas y de cumplir los requisitos previos a la formalización de las operaciones

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
20. Herri Zorra **20.** ***Deuda Pública***	**00**. Herri Zorra **00**. *Deuda Pública*	**011.101** Herri Zorraren Kontrola **011.101** *Control de la Deuda Pública*

- Indarrean dauden zorpetze eragiketak etengabe kudeatzea, maileguen interes-tasen hartzeen finkapen datei, mugaeguneratzeei, finantza-erakundeek egindako likidazioen erkaketari eta abarrekoei erreparatuz.

- Eratorrien eragiketa berriak aztertu eta gauzatzea, egokia bada, gure zorraren arriskuak estaltzeko, une bakoitzean egokitzat jotzen den zorpetze-egituratik eta aurreikusten diren merkatu-baldintzetatik abiatuta.

- Aurreko ekitaldietan egindako zorpetze-eragiketa batzuen kitapena aurreratzeko eta haiek bat egiteko edo balizko birfinantzaketa jarduketak prestatu eta aztertzea, eragiketa horiek komenigarriagoak diren beste batzuekin ordezteko edo zorpetzea gutxitzeko kopuru absolututan, behin betiko nahiz aldi baterako, baldin eta finantza-beharrizanek horretarako aukera ematen badute.

- Bizkaiko Foru Aldundiak emandako bermeen azterketa jarraipena eta kontrola.

Amaitzeko, informazioa ematen da zorpetzeari buruz eta Foru Aldundiak bai Bizkaiko Batzar Nagusiei bai beste erakunde publiko eta pribatu batzuei emandako abalei buruz.

- Gestión continua de las operaciones de endeudamiento vigentes, con atención a las fechas de fijación de las tomas de tipos de interés de los préstamos, vencimientos, contraste de liquidaciones efectuadas por las entidades financieras, etc.

- Estudio y formalización, si procede, de nuevas operaciones de derivados conducentes a cubrir riesgos en nuestra deuda, partiendo de la estructura del endeudamiento que se considere idónea en cada momento y de las condiciones de mercado previstas

- Preparación y examen de posibles actuaciones de cancelación anticipada, y de refundición o posible refinanciación de ciertas operaciones de endeudamiento realizadas en ejercicios anteriores, con el fin de, bien sustituirlas por otras más convenientes, o de disminuir el endeudamiento en términos absolutos, de forma definitiva o temporal, si las necesidades financieras lo permiten.

- Estudio, seguimiento y control de las garantías otorgadas por la Diputación Foral de Bizkaia.

Finalmente, se realiza una labor de información sobre el endeudamiento y los avales otorgados por la Diputación Foral, tanto a las Juntas Generales de Bizkaia como a otras instituciones, tanto públicas como privadas.